

Ebazpena: R 36/2022

Espedientea: 73/2021

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 28an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Asturiasko Printzerriak (aurrerantzean, Printzerria) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zergapekoaren (kausatzailea) heriotzak eragindako oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eta kudeatzeko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 73/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- Kausatzailea 2017ko urtarrilaren 6an hil zen, eta Gasteizen (Araba) zuen egoitza 1998ko uztailaren 8tik.

2.- Printzerriak, 2021eko abuztuaren 19an, inhibitzeko errekerimendutzat hartu behar den idazki bat igorri zion AFARI. Bertan, txosten bat eta hainbat froga aurkeztu zituen, heriotza gertatu aurreko 5 urteetan kausatzailea non bizi zen azaltzeko.

Hala, honako alderdi hauek aipatzen dira idazkian: erabili dituen osasun-zerbitzu publiko eta pribatuak, Asturiasko bizilekuarekin lotutako etxeko langileak, ur-kontsumoa, banku-eragiketak, etab.

3.- Erantzunik jaso ez zenez, Printzerriak iritzi zion AFak isilbidez berresten zuela bere eskumena, eta, beraz, 2021eko urriaren 14an gatazka sustatu zuen Arbitraje Batzordean.

4.- Hasierako alegazioak egiteko izapidea eman zaio AFari, eta horrek onartu egin du Printzerriaren uzia.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikulua araberak, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Gatazka hau kausatzailearen oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eskumenari buruzkoa da, eta horretarako, kausatzaileak hil aurreko urteetan izan zuen bizilekua hartu behar da kontuan; beraz, oinarrian, bi gai horiei buruzkoa dela uste da.

2.- Aplikatu beharreko arauak

Zerga baten ordainarazpena Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean banatzen duen araua Ekonomia Ituna da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua, eta ez Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duen abenduaren 18ko 22/2009 Legea.

Baldin eta, Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari ez badagokio autonomia-erkidegoei lagatako tributu bat ordainaraztea, 22/2009 Legeak zehaztuko du araubide erkideko zein autonomia-erkidegori dagokion zerga ordainaraztea.

Horren arabera, Ekonomia Itunaren 25.Bat.a) artikulua arabera, dagokion foru-aldundiak ordainarazi beharko du dohaintzen gaineko zerga, baldin eta kausatzailea EAEn bizi bada zerga sortzen den egunean.

Ekonomia Itunaren 25.Bi artikulua arabera (salaketaren egunean indarrean zegoen idazketan), ordainarazpena Euskal Autonomia Erkidegoari badagokio ere, lurralde erkideko araudia aplikatuko da kausatzaileak hil baino 5 urte lehenago eskuratu badu egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan.

3.- Printzerriaren jarrera

Kausatzailearen heriotzaren aurreko 5 urteetan Asturiasen bizi izan dela egiaztatutzat jotzen du, eta, beraz, Araubide erkideko autonomia-erkidegoen finantzaketa-sistema arautzen duen 22/2009 Legearen 32. artikulua arabera, oinordetzen gainera zerga ordainaraztea dagokio kausatzailearen heriotzagatik.

4.- AFAREN amore ematea

Hasierako alegazio-idazkian, AFAk onartu egiten su Printzerriaren proposamena, kausatzaileak sortzapenaren datan eta aurreko 5 urteetan Araban bizilekua ez zuela iritzita.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, Arabako Foru Aldundiak amore ematearen ondorioz ez dagoelako administrazioen arteko desadostasunik.

2.- Ebazpen hau jakinaraztea Printzerriari, Arabako Foru Aldundiari eta kausatzailearen oinordekoei.